



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko apirilaren 14an

25 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako, Vicente Duque Alonso jauna buru duen Batzorde Eragile batek aurkeztua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da olioak erregai bezala erabiltzeari buruz neurriak har ditzan, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ENHE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan, «Nafarroako Demokratik Elkargunea» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Dekretu baten bitartez nekazari-jardueren eragin kutsatzaileak arautu ditzan, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua

F SAILA:

Galderak:

—Doktoretza ikastaroak egiteko eta ikerketarako gaitasun ziurtagiria lortzeko dirulaguntzen programari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (12. or.).

- Aitzoingo bidegurutzeari buruz hartutako neurriei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Esako Udaleko zenbait Erabakien aurka egiteari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Eguneratzeko eskubidea duten pentsioei jarritako mugaren ondorioei buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (14. or.).
- Zenbait herritan untxien superpopulazioak eragindako kalteei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Zenbait naturgune mugatze eta mugarritzei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Fidantzen kobrantzak arautzei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Fustiñanako Udalaren Erabaki bat deusezteko Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiak emandako epaiak sortu duen egoerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Kolonbiako bake negoziazioen aurretiko topaketak burutzeko Nafarroa hautatzei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Elortz ibaiak Noainen parean berriz ere duen kutsadurari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Aitzoingo bidegurutzearen egungo egoerari eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitako irtenbideei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- Gas Navarrari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuko 1997ko Kontu Orokorrei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganbarak egina (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko martxoaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentura igorri du 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duen Foru Lege proiektua, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat eta Bozermaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duen Foru Lege proiektuaren biderapena zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Emendakinak Biltzarreko Mahaia-
ren aurrean aurkezteko epea irekitzea. Epe hori eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen bukatuko da.

Hirugarrena.- Proiektu hori Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agin-
tzea.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko

1996ko azaroaren 28an Nafarroako Parlamen-
tuak onetsi zuen mozioan Nafarroako Gobernu-
a premiatu zen Radio Televisión Españolako
Zuzendaritzarekin hitz egiten has zedila. Elkarriz-
keta horien helburua lurraldeetan deskonexioak
egiteko hitzarmena lortzea zen, Nafarroako Foru
Komunitatearen berezko programazioak emanaldi
aski izateko komunikabide publikoetan.

Nafarroako Gobernuaren eta Radio Televisión
Española ente publikoaren arteko lankidetzarako
akordio-markoan telebista kateetan ematen den
lurraldeko programazioa hobetu eta zabaltzeko
bideak bilatzeko konpromisoa bildu zen; hori hel-
buru, Nafarroako Gobernuak TVEren Lurraldeko
Zentroaren finantzazioan lagunduko du, horretara-
ko izenpetuko den berariazko akordioaren propo-
samenean zehazten den moduan, beti ere Nafa-
rroako Aurrekontu Orokorretan gastu hori
aurreikusi bada.

TVEren lurraldeko programazioari buruz Nafa-
rroako Gobernuak eta Radio Televisión Española
ente publikoak sinatu zuten Abiaturuko Akordioan
finkatu zen programazio hori hasiko zela TVEren
emanaldi arrunten deskonexioa eginda, asteko
egun guztietan, Nafarroako Foru Komunitatearen-
tzako programazio berariazkoa eman ahal izate-
ko. Orobat, Nafarroako Gobernuak TVEren lurral-
deko zentroaren finantzazioan lagunduko du,
urtero 250 milioi pezeta emanez. Urte natural
batetik beherako aldiei dagokien ordainketa egin
behar denean, diru-kopuru hori hainbanatuko da.

Horrenbestez, kontuan harturik emanaldiak
1998ko uztailaren 6an hastea aurreikusi dela,
ekarpen hori gauzatzeko 125.000.000 pezetako

kreditu berezia emanen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraziz.

1. artikulua. 1. Radio Televisión Española ente publikoari 125.000.000 pezetako dirulaguntza ematea onetsi da, 1998. urtean TVEren Nafarroako Zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko.

2. Kreditu hori aurrekontuen 62220-4459-5211 kontusailaren Radio Televisión Española ente publikoarentzako ekarpena izeneko 25775-7 lerroaren kargura ordainduko da, 31000 Proiektua.

2. artikulua. Kreditu berezi horren finantzazioa egingen da Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa kontusailaren 35465-2 lerroaren dirusarreraren kargura.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

1998ko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza, Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, eskubide sozialen gutun baterako Foru Lege proposamen bat aurkeztu da Parlamentuan, Batzorde Eragile batek egina. Batzorde horren Presidentea Vicente Duque Alonso jauna da.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 146. artikulua ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Vicente Duque Alonso jauna buru duen Batzorde Eragile batek egindako Eskubide sozialen gutun baterako Foru Lege proposameneren biderapena onestea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguia

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

ZIOEN AZALPENEA

Langabezia estrukturala edo iraupen luzekoa gure gizartearen arazo nagusietako bat bilakatu da. Azken estatistika ofizialek diotenez, Nafarroako Foru Komunitateko langabezi tasak langileria aktiboaren % 10,45ean estabilizatu dira (23.600 langabetu). Familietako % 3,4 pobrezia latzenean dago, eta INEMen izena eman dutenetan % 50,51k baizik ez du nolabaiteko laguntzaren bat jasotzen. Horrela, bada, begibistan zabaltzen ari zaigu gizarte honetan enplegu egonkorra dutenen eta ez dutenen arteko hesia.

Bestalde, ikus daiteke hazkuntza ekonomikoaren zikloek ez dutela balio izan enplegu egonkorra sortzeko, teknologia berriek lanpostuak eliminatzen baitituzte sortzen diren baino arinago eta portzentaia handiagoan. Horrek erremediorik gabe kontrajartzen ditu teknologia berrien bidez laneko denbora aurrezte eta erabiltzen ziren teknologia-atzeratuagoak zirenean ezarritako lanaldiak mantentzea. Hortik datozen ondorio sozialen adierazle dira langabeziaren, probreziaren eta bazterketa soziala behin betiko bihurtzen direla. Hiritartasunaren eskubide unibertsalak ezin dituzte bere osotasunean erabili lan merkatutik baztertuak izan diren pertsonak, eta eskubide horiek berreskuratzeko behar-beharrezkoa da antolamendu juridikoan halako irizpide aurautzaileak sartzea, merkatu libreko ekonomiak sortutako desegokitasun sozialak zuzentzeko bidea eman dezaketena. Helburu horrekin, erabaki dugu Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsona guztientzat hiritartasun eskubidea bere osotasunean bermatuko duen Eskubide Sozialen Gutun bat onartzea.

Hala ere, lege proposamen honek dituen mugak agerian daude, Nafarroako Foru Komunitateak Lan eta Gizarte Segurantzaz eskumenik ez baitu.

1. TITULUA Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea. Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, bizitokia Nafarroako duten (urte beteko egoitza) hiritar guztiei segurtatuko diena lan bat eta oinarrizko errenta eskuratzea hiritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

Horretarako desegokitasun sozialen gainean esku hartzeko bideak ezarriko dira, izan ere berregituratze ekonomikoak eta desindustrializazioak gure gizarteak, besteak beste, langabezia estrukturala, lan prekarietatea, pobreziaren hazkuntza eta

hiritarren gero eta zati handiagoaren bazterketa sozialaren kronifikazioa sortu dituzte.

2. artikulua. Lege hau ondoko printzipioetan oinarritu da:

Hiritartasun eskubide unibertsalak berriro ezartzea lan merkatutako sarbidea itxirik duten pertsona guztientzat, behar den dirusarrerarik ez baitute besteek dituzten eskubide berekin bizitza duin bat izateko, kulturara iristeko eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizartean integrazio osoa izateko ere.

Gizartearen produktutik hiritar bakoitzari dagoen zatia izateko eskubidea benetan aitortzea, bila ibili arren lanik aurkitzen ez dutenentzat oinarritzko errenta bat emanaz.

Lanaldia banatzea lan bila dabiltzenen artean, pertsona eta talde sozialen arteko elkartasun eta berdintasun printzipio unibertsalen izenean, eta hiritartasun eskubideak inplikatzeko duelako nork bere lanarekin laguntzea gizarte osoak ongizatea izan dezan.

II. TITULUA

Lanaldiaren banaketarako politika

3. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoko langileak. Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernurako eskumenekin bat (Forua Hobeagotzeari buruzko Legearen 49,1.b artikulua) eta agente sozialekin ados jarriarik, Nafarroako Administrazio Publikoko langileen lan harremanen arautegia helburu hauetan oinarrituko da: asteko lanaldia 32 ordura jaitea, jubilatzeke adina 60 urtetan paratzea langile guztiarentzat, bateraezintasun sistema ezartzea, aparteko orduak kentzea, langile guztiarentzat, bateraezintasun sistema ezartzea eta aldi baterako kontratuak –halakorik dagoenean– kontratu egonkor bihurtzea.

4. artikulua. Negoziazio kolektiboa. Guztien onerako, agente sozial eta ekonomikoei eskatuko zaie negoziazio kolektibo librearen bitartez gizarte osora heda ditzatela lege honen 3. artikuluan adierazten diren lan kontratazio modalitateak.

III. TITULUA

Lanpostu banatua

5. artikulua. Nafarroako Gobernuak, lanaldi osoa duen pertsona batek langabetu betekin bere lanaldia % 50etan banatu nahiko balu, jasotzen duten soldataren araberrako proportzio inbertsoan diru konpentsazioa prestatuko du.

IV. TITULUA

Oinarritzko errenta

6. artikulua. Eskubidearen definizioa. Nafarroako Foru Komunitateko autogobernuaren eskumenekin bat etorritik (Foru Hobetzeari buruzko Legearen 44.17 artikulua), behar diren neurriak arautuko dira lan merkatutik kanpora daudenean eta behar diren dirusarrerak ez dituztenek eskubidea izan dezaten oinarritzko errenta bat kobratzeko, eskubide osoko hiritar gisa bizi ahal daitezen. Errenta hori, beraz, eskubide indibidualizatua izanen da, bila ibili arren lanik aurkitzen ez duten guztiei emanen zaiena.

7. artikulua. Onuradunak. Enplegurako zerbitzu publikoetan izena emanda dauden 17 urtetik gorako pertsonak, betiere, Nafarroako edozein udalerritan urte bete aurretik bederen zentsatuak badaude.

Era berean, eskubide bera izanen dute Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino prestazio edo subsidio txikiagoa kobratzen dutenek. Horretarako, Nafarroako administrazio publikoak, aurrekontu ekitaldi bakoitzean, LGS horretara iritsi arte gelditzen den dirua jarriko du.

8. artikulua. Zenbatekoa. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen Lanbidearteko Gutxieneko Soldata izanen da.

9. artikulua. Iraupena. Mugagabea izanen da eta onuraduna lan merkatuan sartzen denean eten eginen da. Berriro ordainduko da lana bukatzen bada eta LGS adinako edo gehiagoko prestaziorik kobratzen ez bada.

10. artikulua. Betebeharrak. Oinarritzko errentaren onuradunek, eta hori kobratzeko egoeran dauden bitartean, Administrazioarekin negoziatutako akordio bat sinatu beharko dute, zeinetan ezarriko baita zein jardueratan parte hartu beharko duten hezkuntza, prestakuntza edo sustapeneren arloetan.

V. TITULUA

Finantziarioa

11. artikulua. Lege honetan hartutako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu arrunt bidez finantziatuko dira.

Erregelamenduzko xedapena

Hiru hilabeteren buruan erregelamenduzko xedapenak eta xedapen osagarriak emanen dira, lege honetan ezarritakoa hobeki bete eta gara dadin.

Azken xedapena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aitzina hartuko du indarra.

Xedapen indargabetzailea

Indar gabe galditzen dira lege honen kontrako xedapen guztiak.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua bidea eman zuen toki entitateen jabetzapeko ondasunak eta ondareen gaineko eskubideak dohainik lagatzeko, betiere kasuan kasuko entitateko Osoko Bilkurak halakorik onesten badu; eta bakar-bakarrik eginen da beste Administrazio batzuen alde, bai eta erakunde publiko edo irabazi asmorik gabekoak izan eta interes publikoa duten erakunde pribatuen alde ere, onura publikoa edo gizarte interesa duten xedeetarako, betiere bertakoen interesak betetzeari aldekoak baldin badira, eta alde zuzenetik inorengarri deklaratu.

Gero eta maizago garapen bidean dauden herrialdeekin nazioarteko kooperazio lanetan aritzen diren erakunde publiko eta pribatuek Nafarroako toki entitateei eskatzen dieten ondasunak dohainik emateko, batez ere ondasun higigarriak, ibilgailuak, makineria, ekipo informatikoak eta abar, betiere baliorik ez dutenak edo erabiltzen ez direnak baina beste herrialde batzuetan erabilitezkeenak. Dohaineko lagapenek derrigor bertakoen interesak betetzeari lotuta egotea oztopoa da lagapen horiek egiteko.

Toki entitateen ondasun eta ondare-eskubideak garapen bidean dauden herrialdeekiko kooperazio lanetan erabili behar dituzten erakunde publikoei edo irabazi asmorik gabeko interes publikoko erakunde pribatuei lagatzeko xedez, ondoko aldaketa proposatzen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 136. artikuluan.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 136. artikulua-
ren 1. idazatiko lehen lerroaldean, “bertakoen

interesak betetzearen aldekoak baldin badira” eta “aldez aurretik inorengarri deklaratura” hitzen artean ondoko testua jartzea: “edo garapenerako nazioarteko kooperazio lanetarako”. Honela geldituko da idatzirik:

“Art. 136.1. Entitate lokalen ondareko ondasun eta eskubideen jabetza lagatzea dohainik egitea Udalaren Osoko Bilkurak erabakiko du korporazio-ko kideen kopuru legalaren gehiengo absolutuz,

eta bakar-bakarrik egingen da beste Administrazio batzuen alde, bai eta erakunde publiko edo irabazi asmorik gabekoak izan eta interes publikoa duten erakunde pribatuen alde ere, onura publikoa edo gizarte interesa duten xedeetarako, betiere bertakoen interesak betetzearen aldekoak edo garapenerako nazioarteko kooperazio lanetarako baldin badira, eta aldez aurretik inorengarri deklaratura.”

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da olioak erregai bezala erabiltzeari buruz neurriak har ditzan

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da olioak erregai bezala erabiltzeari buruz neurriak har ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierda alderdiko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu,

Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaida dadin.

Hondakin Bereziei buruzko Plan Kudeatzailea izapidatzeko eztabaidan aurretik eraberritu gabeko olioak erregai bezala erabiltzen ez jarraitzeari buruz hitz egin genuen. Horixe ezarri du Europako Komunitateak, balorarizazio sistemetako bat bezala kontabilizatu dadin.

Nafarroan ez dago olioak berreskuratu eta gero erregai izateko eraberritzen dituen zentro bakar bat ere. Hala ere, Nafarroan eraberritu gabeko olioak erabiltzen ari dira erregai gisa.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du ondoko neurriak hartzera:

1. Egoki jotzen dituen neurriak, eraberritu gabeko oliorik ez dadin erabili erregai gisa Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean.

2. Komenigarri jotzen dituen prebentzio eta atzerarazteko neurriak, hiru hilabeteren buruan lehendik eraberritu gabeko olioak erretzeko debekua egon dadin Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan.

Iruñean, 1998ko martxoaren 24an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ENHE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» ETA «IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEEK ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak ondoko mozioa aurkeztu dute: Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ENHE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIAREN EDUKIA

Izenpetzen duten Talde Politikoetako ordezkariak ondoko mozioa aurkeztu dute Nekazaritza Batzordean eztabaidatzeko.

Mozio honen helburua da Foru Administrazioaren (Nekazaritza Departamentua) eta EHNE nekazaritza eta abeltzaintzako sindikatuaren artean dagoen arazoa konpontzea.

Gertatutakoa argitzeko zenbait ekimen parlamentario izan dira eta bada garaia Gobernua urratsak ematen hasteko, sindikatu horrek dirulaguntza eskuratuko duela bermatzeko.

Hori dela eta, ondoko mozioa aurkezten diogu Nekazaritza Batzordeari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren fondoak presta ditzan gehienez ere hilabeteko epean ENHERi 1997 urteko dirulaguntza ordaintzeko. Dirulaguntza horren zenbatekoa ENHEk REASSen eta RETAn alta emanda dituen afiliatuen -betiere haien intimitatea gordez- eta 1997 urtean nekazaritzako profesionalen beste elkarteari emaniko dirulaguntzaren likidazioan erabilitako proportzioen arabera izanen da, izan ere afiliatu bakoitzeko dirulaguntza berdina jaso dezaten bi kasuetan.

Iruñean, 1998ko martxoaren 12an

Foru Parlamentariak: Jesús Javier Arteaga Olleta, José Miguel Nuin Moreno eta Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Dekretu baten bitartez nekazari-jardueren eragin kutsatzaileak arautu ditzan

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Dekretu baten bitartez nekazari-jardueren eragin kutsatzaileak arautu ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lurraldearen

Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaida dadin.

Nekazaritza sektoreak lotura garrantzitsua du kualitatiboki eta kuantitatiboki natur ingurunearekin; horretaz gainera, nekazaritza sektorea, elementu fisikoen eta giza-elementuen multzoa den aldetik, funtsezkoa da natur ingurunea kontserbatzeko.

Azken hamarkadetan nekazaritza jarduera asko intetsifikatu da eta horrek naturaren gehiegizko ustiaketa ere ekarri du berekin eta askotan natur ingurunerako ondorio negatiboak ere. Hori garrantzitsua da gogoan hartzen bada nekazaritza bera natur ingurunearen menpe dagoela.

Orain arte izan diren arautegiek eta horiek Estatuetakoa arauetara ekartzeak agerian utzi dute urteak pasa ahala ingurugiroaren gaia Nekazaritza Politika Amankomunaren funtsezko osagaia dela herrien ingurunea hobetzeko. Hori dela eta, hauxe da politika horren lehentasunezko helburretako bat: ohiko nekazaritza jardueren kutsadurazko eraginak progresiboki murriztea

Joan den abenduan Ganbara honetan izandako aurrekontuei buruzko eztabaidan, Socialistas

del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakin bat onetsi zen parlamentari talde gehienen botuarekin. Emendakin horren bitartez, 1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan lerro berri bat ezarri zen, geroan ere zabaltzeko aukera ematen zuena, izen honekin: Kutsadura handia sortzen dituen produktu fitosanitarioak ordeztzeko pizgarriak. Lerro hori Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak burutu beharreko programetan sartu zen.

Mozio honen helburua da, hain zuzen ere, behar den dokumentazioaren, aplikazio-irizpide partikularren eta izapidaketa-prozesuen araupeztzea lortzea, izan ere tratamenduetatik arrisku handiko produktuak ordezten dituztenek onetsitako aurrekontu-lerroan proposaturiko pizgarriak eskuratu ahal izateko. Hori dela eta ondoko erabakia proposatzen diegu Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeko kideei:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du, natur ingurunerako bortitzak diren tratamenduetako kutsadura-ondorioak saihestu edo murrizketeke helburuarekin, Foru Dekretu baten bitartez gauzatu dezan 1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako kutsadura handiko produktu fitosanitarioak ordeztzeko pizgarriak eskuratzeko interesatuek bete beharreko baldintzen araupetzea.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Aitzoaingo bidegurutzeari buruz hartutako neurriei buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Aitzoaingo bidegurutzeari buruz hartutako neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Azken aldi honetan, bai Gipuzkoako errepidearen inguruan ematen ari den hirigintza-garapenarekin batera, bai eskualdeko komunikazio azpiegituren elkartze-guneak direla eta, larritu egin dira joan-etortzeko arazoak, lekuetara heltzeko arazoak eta istripu-kopurua ere handitu egin da (20 istripu, 13 biktima, horietarik bi, hildakoak). Arazo horien larritzea, bereziki, mendebaldeko ingurubidea, mendebaldeko saihesbidea eta autopistak bat egiten duten lekutik (leku hori benetako botilalepo bihurtzen da, eta Departamentuko txostenek ere horrela onartzen dute) Berrioplanoko hirigunera sartzeko bideraino doan Gipuzkoako errepide zatian ematen da; zati hori, guztira, kilometro bateko zeharbidea da, eta eragin garrantzitsua du

NA-4100 Aitzoain-Urritza errepideak bat egiten duen lekuan.

Aipatu zatiaren zerbitzu maila gainezka egoten da modu ez-egonkorrean (19.000 auto eguneko) eta honek kalte ugari dakartza, bereziki, arriskuak eta atzerapenak. Kaltetuak zonaldeko bizitoki- eta industria-sareak izaten dira, eta baita merkantzi garraio eta eskola garraio publikoak ere. Batzuetan, asteburuko trafikoa itzultzerakoan, zatia kolapsora ere heltzen da.

Egoera honen aurrean, kaltearen mailaz konaturatu egin dira arazo honek zuzenki kaltetzen dituen Udalak eta Kontzejuak, eta baita erabiltzaileak ere. Ondorioz, foru administrazioari etengabe eskatu zaizkio irtenbideak, eta, horregatik, Herrilan Departamentuak jarduketa partziala egin du aipatutako zatiaren puska batean; jarduketa horrek 330 miloitako aurrekontua du Planean. Azken aste honetan Xulapain Ibarra izan da, bere Udal eta Kontzejuen bidez, premiako irtenbideren bat eskatu duena arazo honentzat.

Hori guztia dela eta, hauxe jakin nahi da:

- Zer neurri hartu ditu Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Aitzoaingo bidegurutzea izenekoaren arriskugarritasuna desagerrarazteko?

- Zein betetze-epe dituzte hartutako neurriek?

- Zer aurrekontu ekonomiko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak aipatutako puntu beltzaren arriskugarritasuna desagerrarazteko?

Iruñean, 1998ko martxoaren 24an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Esako Udaleko zenbait Erabakien aurka egiteari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Esako Udaleko zenbait Erabakien aurka egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendárizek, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion.

Toki Administrazioako Kontseilariaren maiatzaren 5eko 27/1997 Foru Aginduaren bidez, Esako Udalaren erabakiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkatu ziren. Erabaki horiek 1996ko utzailaren 17koa eta abuztuaren 20koa dira

(lehenbizikoa administrazio-lanak egiteko pertsona bat kontratatzeari buruzkoa da eta bigarrena Udaleko Idazkari izateko gaitzeari buruzkoa).

Foru Agindu horietan aipaturiko arau-hausteen arrazoiak administrari laguntzaile bat zuzenean kontratatzeke legezko estalduraren gabezia, boterearen desbideraketa eta Idazkari lanak burutzea funtzionario-estatutua duten langileentzat erreserbatu izana.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak aipatu Foru Agindua betetzeko?

- Zein egoeratan dago administrazioarekiko auzian Esako Udaleko aipatu erabakien aurkatea?

- Denborari dagokionez, zein aurreikuspen egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu Foru Agindua behar bezala betearazteko?

Iruñean, 1998ko martxoaren 24an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Eguneratzeko eskubidea duten pentsioei jarritako mugaren ondorioei buruzko galdera

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak eguneratzeko eskubidea duten pentsioei jarritako mugaren ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion:

Aurrekontuaren azken eztabaidan zenbait emendakin onetsi zen artikuluetan aldaketak egiteko, eta horien xedea zen gaurkotze eskubidea duten pentsioei muga jartzea, eta horrela pentsioei gehikuntzak gehitu, eta ezin izanen dute gainditu Gizarte Segurantzaren pentsioetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritako gehieneko muga.

Hiru hilabete pasa dira Aurrekontuen Legea onetsi zenetik, eta jakin nahi da zer eragin izaten ari den xedapen hau Nafarroako Administrazio Publikoaren klase pasiboetan. Hori dela eta, galdera honen bidez, datuak nahi dira, gaur egun, zenbatekoa jada 1998rako Aurrekontuak ezarritakora mugatua izan duten pentsio kopuruari buruz.

Halaber, jakin nahi da nola interpretatu dituen Nafarroako Gobernuak 1998rako Aurrekontuen Legean emendakin bidez onetsi ziren xedapenak, hain zuzen, pentsioei buruzkoak eta baita pentsio horiek Administrazioan ari diren langileengan dituzten eraginak aurreikusten zituztenak.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Bozeramailea: Carlos Cristobal García

Zenbait herritan untxien superpopulazioak eragindako kalteei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak osasun zentroetako haur/pediatra ratioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren bitartez, joan den abenduan baimena eman zuen hudoa erabiliz ehizatzeke, untxi kopuruaren ugaltzea zela eta. Lehenago, aipatu ugaltze hori aurreikusita, izan ere 1996an eta 1997an berdin gertatu baitzen, abuzturako aurreratu zuen ehizaldiaren irekitze orokorra.

Artaxonako Ehiztarien Elkartek 1997ko azarotik aurrera hainbat baimen eskatu zituen untxiak ehizatzeke nekazaritzak kalteak sortzen direnako legediak aurreikusitako moduak erabiliz. Halaber, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eskatutako untxien harrapaketa baimendu zituen Artaxonako NA-10.452 ehiza barrutian, hain zuzen ere nekazari-

tzan sortutako kalteengatik untxien populazioa kontrolatzeko xedez.

Artaxonako Ehiztarien Elkartek baimen hauek eskatu zituen:

97-11-21ean, hudoa eta sareak erabiliz ehiza barrutiko iparraldeko alderdian untxiak harrapatzeke, bai eta haiek ehiza barrutiko beste alde batzuetara aldatzeko ere.

97-12-10ean, hudoa eta eskopetak erabiliz untxiak harrapatzeke, Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideek egiten duten lerroan.

97-12-17an, zakurrak eta eskopetak erabiliz untxiak harrapatzeke, Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideetatik iparraldean.

97-12-18an, zakurrak eta eskopetak erabiliz untxiak harrapatzeke, Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideetatik iparraldean (luzapena).

98-01-10ean, zakurrak eta eskopetak erabiliz untxiak neguko ehizaldian harrapatzeke, Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideetatik iparraldean (luzapena).

98-02-26an, hudoa eta eskopetak erabiliz untxiak ehizatzeke Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideetatik iparraldean.

Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak, behin teknikiari nekazaritzan kalte egiten duten untxiak zeudela egiaztatu ondoren, zenbait harrapaketa baimendu zituen ebazpenen bitartez:

3691 Ebazpena, 97-12-11koa, untxia hudoa eta eskopetak erabiliz ehizatze baimena ematen duena, Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideek egiten duten lerroan, 1997ko abenduaren 14an eta 21ean. Gehienez ere 5.000 untxi harrapatu ahal izanen dira. Horietatik 50 Ingurugiro Zerbitzuari eman beharko zaizkio, behar diren azterketak egiteko. Artaxonako Ehiztarien Elkarteak txosten bat egin beharko du, zenbat untxi ikusi dituzten, zenbat harrapatu dituzten eta zein toki erabili diren adieraziko dituen.

3870 Ebazpena, 97-12-19koa, untxiak hudoa eta eskopetak erabiliz ehizatze baimena ematen duena, Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideek egiten duten lerrotik iparraldera, 1997ko abenduaren 28an. Gehienez ere 2.000 untxi harrapatu ahal izanen dira. Horietatik 50 Ingurugiro Zerbitzuari eman beharko zaizkio, behar diren azterketak egiteko. Artaxonako Ehiztarien Elkarteak txosten bat egin beharko du, zenbat untxi ikusi dituzten, zenbat harrapatu dituzten eta zein toki erabili diren adieraziko dituen.

3875 Ebazpena, 97-12-26koa, untxiak zakurak eta eskopetak erabiliz ehizatze baimena ematen duena, Artaxonatik Mendigorriarako eta Artaxonatik Tafallarako errepideek egiten duten lerrotik iparraldera, 1997ko abenduaren 31tik 1998ko urtarrilaren 31ra bitartean, ostegun, larunbat, igande eta jai egunetan. Gehienez ere 500 untxi harrapatu ahal izanen dira egun bakoitzean. Horietatik 50 Ingurugiro Zerbitzuari eman beharko zaizkio, behar diren azterketak egiteko. Artaxonako Ehiztarien Elkarteak txosten bat egin beharko du, zenbat untxi ikusi dituzten, zenbat harrapatu dituzten eta zein toki erabili diren adieraziko dituen.

Bestalde, 1997ko abenduaren 19an, Ingurugiroko Zuzendari Nagusiak, 3872 Ebazpenaren bitartez, 16.126.383 pezetako gastua onartu zuen tokian tokiko ehiztarien elkarteek eta ehiza barrutiren bat zuzenean kudeatzen duten toki entitateek nekazari ei ehiza-espezieek 1997ko ekainaren 4tik azaroaren 20ra bitartean sorturiko kalteen ordainak emateko.

Martxoaren hasieran gaudela, aurretik adierazitako ehiza-baimenak baino gehiago eman ote ziren jakin gabe, alderdi horretako untxien populazio-dentsitatea murriztu bada ere, artean asko daude eta laboreetan kalteak sortarazten jarraitzen dute, batez ere garian eta oloan, eta gutxiago mahastietan, ilarretan eta frantses porruetan.

Untxien gainpopulazioak kalteturiko alderdia zabaltzen joan da. Gaur egun Añorbe, Artaxona, Eneritz, Obanos eta Mendigorria ere hartzen ditu. Horrek kezka eta haserrea piztu ditu uztetan kalteak jasaten ari diren nekazariengan.

Kanpainia honetan izandako kalteek peritu tasatzaile bihurtu ditu ukituriko udalak, gertaturiko kalteak ebaluatu ahal izateko. Lehenbiziko tasatze lana berriki bukatu da; bigarrena, berriz, ekainean egingen da, laborreak handiago dauden garaian.

Untxien gainpopulazioak Añorbe, Artaxona, Eneritz, Obanos eta Mendigorrian sortarazitako kalteak direla eta, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Zenbat ebazpen onetsi ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak untxiak modu ezberdinetan ehizatze baimena ematen dutenak? Ondoko datuak behar dira: ebazpenen kopurua, data, moduak, baimenen aldiak eta gehienez ere zenbat untxi ehizatzea baimendu den.

2. Zenbat txosten bidali ditu abuztutik hasita Artaxonako Ehiztarien Elkarteak? Ondoko datuak behar dira: data, zenbat untxi ikusi dituzten, ehizaturiko untxien kopurua eta erabilitako tokiak.

3. Uste al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, aurretik aipaturiko untxiak harrapatze baimenak gorabehera, alderdi horretako untxien dentsitateak jasangarriaren mugak gainditzen dituela?

4. Aurreikusi al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak jarduketa osagarriren bat egitea NA-10.452 ehiza barrutiko untxien populazioa murrizteko? Zein jarduketa da hori?

5. Aurreikusi al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak jarduketaren bat egitea untxien gainpopulazioa duen NA-10.452 ehiza barrutiko behe-basoan? Zein jarduketeta da hori?

6. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren iritziz, zien dira aldi honetako untxien gainpopulazioaren arrazoiak, alegia, zergatik daude aurreko urteetan baino askoz ere untxi gehiago?

7. Zein izan da lehen aipaturiko diru-zenbatekoaren banaketa 1997ko ekainaren 4tik azaroaren 20ra bitartean ehiza-espezieek sorturiko kalteak nekazari ei ordaintzeko? 1997ko Gastuen Aurrekontuko 11630 lerroko 31220-4809-4421 Ehizako basa-faunak sorturiko kalteengatik aseguruak eta kalteordainak kontusailaren kargura laguntza-

ren bat jaso duten elkarte eta toki entitateen zerrenda, eta jasotako zenbatekoak.

9. Ordaindu al da kalteordainen bat basa faunak sorturiko kalteengatik 1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako beste kontusailen baten kargura? Baiezkoan ondokoak adierazi: kontusailak eta kalteordain horien zenbatekoak, datak eta hartzaileak.

10. Zenbat ehiza barruti bildu dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak prebentzio neurriak hartzeko eskuragarri dituen laguntza lerroetara? Ondoko datuak behar dira: laguntza horien zerrenda, eman ziren eguna, zenbatekoak eta laguntza horiek jaso dituzten entitateak.

11. Aurreikusi al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak jarduketaren bat egitea ukitutakoek beren laboreetan jaso dituzten kalteen ordainak kobratuko dituztela bermatzeko? Zein jarduketa da hori.

12. Egin al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kalteen tasazioren bat? Zenbateko kalteak daude alderdi bakoitzean eta labore mota bakoitzean? Zenbatekoa da kalte horien balorazioa?

Iruñean, 1998ko martxoaren 23an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruz egindako galderaren bidera-pena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak, bai elkarteetan bai familietan, bere babespean dituen nerabeei buruz unean uneko informazioa eduki nahi da.

1.- Zenbat nerabe daude elkarteetan hartuak?

2.- Zenbat nerabe daude familietan hartuak?

3.- Zer dirulaguntza jasotzen dituzte nerabeak hartzen dituzten familiek?

4.- Zer segimendu egiten die Nafarroako Gobernuak nerabeei Gobernuaren babespetik eta egon diren elkarteetatik joaten direnean?

5.- Babespean egondakoetatik zenbat heltzen dira Unibertsitatera, Lanbide Heziketara eta lanbide-kategorietara?

6.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak zein ikasketak, edo lan, egiten dituzten, azken bost urte hauetan babespea utzi duten gazteek?

7.- Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak aipatutako nerabeen gizarte-integrazioa?

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Zenbait naturgune mugatze eta mugarrizeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak zenbait naturgune mugatze eta mugarrizeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Legeak, Bigarren Xedapen Iragankorraren laugarren puntuan ezarri zuen Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren bitartez, urtebeteko gehieneko epean, Natur Erreserben, Erreserba Integralen eta Lekune Naturalen babespeneko bazter-eremuetan seinalizatzea eta mugarriztea eginen zituela.

Argi dago Nagurguneei buruzko Legea onetsi zenetik ia bi urte pasa direnean, denbora asko beharko dela Erreserba eta Lekune naturalen babespeneko bazter-eremuak mugarrizteko lanak bukatzeko.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zein puntutan daude Natur Erreserben, Erreserba Integralen eta Lekune Naturalen babespeneko bazter-eremuak seinalizatu eta mugarrizteko lanak?

2. Egia al da babespeneko bazter-eremuak seinalizteko lanak, gero mugarriztea ahal izateko behar direnak, hasi ere gabe daudela? Hala bada, azaldu zergatik.

3. Nor ari da Naturguneei buruzko Foru Legeak ezarritako lanak egiten eta zein dira Legea betetzeko atzerapena sortarazten duten arrazoiak, izan ere Ingurugiro Departamentuak bitartekoak eta giza baliabideak sobran dituenean kontrapasako ehiza baimendu eta kontrolatzearen zerbitzuan jartzeko?

4. Konturatzen al da Naturguneei buruzko Foru Legeak ezarritako epea (urtebete) aise gainditu dela.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Fidantzen kobrantzak arautzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak fidantzen kobrantzak arautzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion.

Etxebizitzak eta merkataritza lokalak errentan jartzeko fidantzei dagokienez, Legeak hilabeteko fidantza ezartzen du etxebizitzetarako eta bi hilabeteko fidantza bulegoetarako eta merkataritza lokaletarako.

1996 eta 1997 urteetako Estatuko Aurrekontu Orokorretarako Neurri Laguntzaileei buruzko lege proiektuek idazati hori aldatu eta ezarri zuen errenta hartzaileak erakunde publikoak baldin badira, ez dutela fidantzarik ordaindu behar.

Autonomi erkidegoen esku dago fidantzak non, nori eta zertarako ordaindu buruzko araupetzea .

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Nola arautu du Nafarroako Gobernuak fidantzen kobratzea eta zenbat diru egin dute fidantza horiek 96 eta 97 urteetan? Azaldu zein dagozkien etxebizitzetara eta zein merkataritza lokalei.

2. Zenbat fidantza mota daude Nafarroan, merkataritza lokal eta bulegoetarako eta etxebizitzetarako.

3. Zer egiten da fidantza horiekin, alegia ordaindu bai baina errentarien eskuetan gelditu behar ez direnak? Zenbat diru eskuratu du Administrazioak 96, 97 eta 98 urteetan etxebizitzengatik eta merkataritza lokal eta bulegoengatik?

4. Zein banku, kutxa edo fidantza entitatetan dago diru hori eta zer etekin ekonomiko ateratzen da? Zer onura ekartzen dio Nafarroako Administrazio Publikoari.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Fustiñanako Udalaren Erabaki bat deusezteko Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiak emandako epaiak sortu duen egoerari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Fustiñanako Udalaren Erabaki bat deusezteko Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiak emandako epaiak sortu duen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguíá

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion:

1993an Nafarroako Gobernuak Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuak, Fustiñanako Escuelas Viejas Etxebizitzaren Elkarrekin aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta alde administratibo, tekniko eta hirigintzaketik bidezko zela ikusita, babes ofizialeko etxebizitzaren behin-behineko kalifikazio zedula ematea erabaki zuen.

Kalifikazio zedula eman baino lehen, etxebizitza horien promozioaren lehenbiziko izapidaketak polemika handia sortarazi zuen bai udalean, bai komunikabideetan.

Fustiñanako Udaleko Talde Sozialistak errekurtsioa aurkeztu zuen Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusian Escuelas Viejas Elkarteari obrak egiteko lizentzia emateko Udalaren erabakiaren aurka.

Egoera horren ondorioz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Kontseilariaren, alegia, D. Ricardo de León Egües jaunaren agerraldia izan zen Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean, Fustiñanako etxebizitzaren promozio horren berri emateko.

1994ko urriaren 13an egindako agerraldiak, aurkeztutako errekurtsioa alde batera utzita, zenbait gai utzi zuen argitu gabe, esate baterako lurzorua prezioa –gero etxebizitzaren bukaerako prezioan eragin zuena– eta likidaturiko amaierako zenbatekoen ezagutza, izan ere horietan oinarritu baitzen etxebizitzaren tipologia horri dagozkion dirulaguntzak.

1998ko otsailaren 12an, Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak aintzat hartu zuen Fustiñanako Udaleko Talde Sozialistak Udaleko Hirigintza eta Etxebizitza Batzordearen erabakiaren aurka aurkeztu zuen errekurtsioa. Horren bidez obretarako lizen-

tzia ematen zen Araubide Bereziko Babes Ofizia-
leko 20 etxebizitza –garaje eta trastelekuekin–
eraikitzeako, Escuelas Viejas Etxebizitza Taldeak
sustatutakoak.

Aipatu errekurtsua aintzat hartu izanak berekin
dakar Fustiñanako Udalak bere egunean hartuta-
ko erabakia deuseztekoa eta indarririk gabe uztea,
hain zuzen ere antolamendu juridikoaren aurka-
koa delako, Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusia-
ren epaiaren arabera.

Escuelas Viejas Etxebizitza Taldeari obretara-
ko lizentzia eman zien Fustiñanako Udalaren era-
bakia deusezteko Nafarroako Justizi Auzitegi
Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak
emandako epaiak sortu duen egoera dela eta,
ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Uste al du Nafarroako Gobernuak, Lurralde-
aren Antolamendu eta Hirigintzako eskumenak
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren
organoen artean banatzeari buruzko abenduaren
10eko 254/1987 Foru Dekretuaren arabera, Ingu-
rugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza
Departamentuko Kontseilariri dagokiola hirigintza-
ko legeak betetzeari begiratzea, baldin eta hirigin-
tza arau-hauste larriren bat gertatzen bada jada
emanda dagoen lizentzia batean?

2. Uste al du Nafarroako Gobernuak, Hirigintza
Disziplinari buruzko Erregelamendua aplikatuz,

izan ere 1993ko otsailaren 26ko Indarrezko
Arauen Taularen (304/1993 Errege Dekretua)
ondorioz indarrean dagoena, Ingurugiro, Lurralde-
aren Antolamendu eta Etxebizitza Departamen-
tuaren eskumena dela Fustiñanako Udalari jakina-
raztea 1998ko otsailaren 12ko Nafarroako Justizi
Auzitegi Nagusiko epaiak berresten duen hirigin-
tazako arau-haustea?

3. Uste al du Nafarroako Gobernuak, ekaina-
ren 26ko 1/1992 Dekretu Legegileari jarraituz eta
indarrean den Lurzoruari buruzko Legearen Testu
Bateratuari jarraituz, egindakoen tipologiako etxe-
bizitzak eraikitze baimena ematea -hori egin
aurretik indarreko Arau Subsidiarioak aldatu gabe-
arau-haustea dela, hirigintzazko eta lurzorua-
ren erabilerari dagokionez?

4. Zein jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako
Gobernuak aipatu epaiaren ondorioz, betiere uki-
turiko Fustiñanako hiritarren interesak bermatuta?

5. Egia al da Nafarroako Gobernuak babesten
duela Fustiñanako alkateak espediente horretan
izan zuen jokaera, izan ere alkateak berak berriki
Udalaren Osoko Bilkuran adierazi zuen bezala?

Iruñean, 1998ko martxoaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez
Turrillas

Kolonbiako bake negoziazioen aurretiko topaketak burutzeko Nafarroa hautatzeari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko
martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen
Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jau-
nak Kolonbiako bake negoziazioen aurretiko topa-
ketak burutzeko Nafarroa hautatzeari buruz egin-
dako galderaren biderapena onestea. Galdegileak
idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Arangurennek, Nafarroako
Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari
atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko
Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengo-
tan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera
egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun
diezaion.

Komunikabideen bitartez jakin dugu Nafarroan
burutuko direla Kolonbiako bake negoziazioen
aurretiko topaketak; horietan ELN gerrilari taldeak

eta Kolonbiako Gobernuak hartuko dute parte. Bide horretan, Espainiako diplomaziak eta Nafarroako Foru Gobernuak honezkero 30 milioi pezeta eman dituzte negoziazioetan parte hartuko dutenen bidaia eta lojamendua ordaintzeko; beste aldetik bileretako prestaketak azkentzen ari dira, oso zuhurki. Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Egia al da informazio hori?
2. Nafarroako Gobernuak zein Departamenturi esleitu zaio lan hori?
3. Zein aurrekontu saila erabiliko da hori ordaintzeko?
4. Nork eskatu dio Nafarroako Gobernuari negoziazio horietan bitartekari lanak egitea?

5. Zein kontaktu izan dira orain arte ELN gerrilari taldearen eta Kolonbiako Gobernuaren artean?

6. Zein izan da jarduketaren egutegia?

7. Zein dira etorkizunerako ELN gerrilari taldearekin eta Kolonbiako Gobernuarekin aurreikusitako diren kontaktuak?

8. Uste al du Nafarroako Gobernuak terroristen eta Kolonbiako Gobernuaren arteko negoziazioa formularik egokiena dela herri latinoamerikar horrek bizi duen gatazka armatua gainditzeko?

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Elortz ibaiak Noainen parean berriz ere duen kutsadurari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Elortz ibaiak Noainen parean berriz ere duen kutsadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Nueva Izquierda-ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion.

Elortz ibaiak Noainen parean duen kutsaduraren gaia berriz ere azaldu da komunikabideetan; oraingoan errepide zaharraren inguruetako egoera da kezka sortu duena, hirigunetik kilometro batera.

Duela urtebete eskas garraioaren hiriko hodi baten garbiketari izandako akats batengatik gerta-

tu zen; oraingoan, berriz, badirudi hiru kolektorek ur beltzak isuri dituztela Elortz ibaira inork jakin gabe nola, izan ere itxuraz erabiltzen ez ziren hiru hodi baitziren.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ea Ingurugiro Departamentuak neurriren bat hartu ote duen hori konpontzeko.

2. Zein den Elortz ibaira egindako isurketa kutsakor horren jatorria eta nor izan den horren erantzulea, eta zein neurri hartu behar dituen Nafarroako Gobernuak bai isurketa bera identifikatzeko (horri buruzko azterketak egitea) bai isurketa horren arduradunak identifikatzeko.

3. Zein jarduketa burutu dituen edo burutzeko asmo duen Nafarroako Gobernuak gertatutakoa zuzentzeko.

4. Nafarroako Gobernuaren iritziz, zein prebentzio jarduketa burutu beharko liritekeen mota horretako gertakizunik berriz ere ez egoteko, izan ere gure ibaietako biziaren parte bat modu saihestezinean akabatzen duten gertakizun horiek.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Aitzoaingo bidegurutzearen egungo egoerari eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitako irtenbideei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Aitzoaingo bidegurutzearen egungo egoerari eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitako irtenbideei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aitzoaingo bidegurutzeak (Aitzoain-Urritza errepideak Gipuzkoakoarekin bat egiten duen lekua) sortzen dituen arazoak konpontzeko Herri-lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eginiko jarduketak ez dira nahikoa izan. Leku horretan semaforo batzuk jarri ziren trafiko-mugimenduak antolatuzko, baina horrek arazoa konpondu beharrean larritu egin zuen, zirkulazio-gelditze larriak gertatzen baitziren N-240aren kaltetutako zatian.

Puntu hori arazo larrienak dituztenetakoa da, Foruzaingoaren trafiko sailak eginiko txosten baten arabera, eta Xulapain, Ultzama, Atetz eta Ezkabarte Ibarretako biztanleek, eta Berriplano-koek, nahitaez pasa behar dute puntu horretatik Iruñera heltzeko. Leku horretan zenbait idustrialde ere bada, hala nola, Iruregaina, El Soto, eta beste

batzuk, eta horrek ere trafikoaren dentsitatea areagotzen du zonalde horretan.

Orain 8 hilabete, arazoa konpontzeko, trafikoa banatuko zuen glorieta bat eraikitzeaz hitz egin zen. Glorieta hori Iruregaina Industrialdearen sarreran eginen litzateke, eta bertara heltzeko NA-4110 (Aitzoain-Urritza) eta NA-240 batuko litzuzkeen errepidea erabiliko litzateke.

Orain gutxi, kaltetutako Udal eta Kontzejuek egindako bilera batean, bidegurutze honen egoera honela kalifikatu zen: herri hauek duten arazorik larrienetako bat.

Aitzoaingo bidegurutzearen egungo egoerari buruz, eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitako irtenbideei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Arazo larria duen puntua denez gure komunitateko trafikoarentzako, zenbat ibilgailu eta zein motatakoak pasatzen dira leku horretatik egunero? Zenbat istripu izan dira azken urteetan aipatutako bidegurutzean? Zenbat pertsonak jasan dituzte istripu horiek eta zenbat hildako izan dira?

2.- Zein jarduketa egin dira gaurdaino aipaturiko bidegurutzean? Ondokoak nahi dira: jarduketa mota, horren eguna, eta amaierako aurrekontua.

3.- Uste du Nafarroako Gobernuak egindako jarduketekin ez dela konpondu arazoa? Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak jarduketa berririk egiteko? Zeintzuk? Laburki aipatu aurreikusitako jarduketak eta horien aurrekontua.

4.- Noizko uste du Nafarroako Gobernuak normalak izanen direla Aitzoaingo bidegurutzeko joan-etorriak eta hara heltzeko egin beharrekoak?

Iruñean, 1998ko martxoaren 30ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Gas Navarrari buruzko galdera

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak Gas Navarrari buruz egindako galderaren bidera-pena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarragak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua xedatuaren babespean, hurrengo galderak egin dizkio Lan, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaioten:

1.- Departamentu honi, noiz eskatu zion Gas Navarrak komunitate honi gas-hornidura ematen dion enpresak gas-hartzea kobratzeko baimena?

2.- Zein egunetan aurkeztu zuen Gas Navarrak gas-hartzeari buruzko azkeneko eskabidea?

3.- Zer tarifa proposatzen zituen Gas Navarrak gas-hartzeagatiko eskubideak kobratzeko?

4.- Zer ikerlan justifikagarri aurkeztu zituen Gas Navarrak eskubide horiek kobratzeko?

5.- Noiz eman zion baimena Nafarroako Gobernuak Gas Navarrari gas-hartzeagatiko eskubideak kobratzeko?

6.- Aurrekoak oinarri hartuta, noiz argitaratu ziren NAOn gaur egun indarrean dauden gas-hartzeagatiko eskubideei buruzko tarifak?

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an.

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuko 1997ko Kontu Orokorrei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Nafarroako Parlamentuko 1997ko Kontu Orokorrei buruzko aholkularitza txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuko 1997ko Kontu Orokorrei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa.
- II. Iritzia.
- III. Egoera finantzarioak 1997-XII-31n
 - 1. koadroa. 1997ko aurrekontua betetzea.
 - 2. koadroa. 1997ko emaitzen kontua.
 - 3. koadroa. 1997ko emaitzen aplikazioa.
 - 4. koadroa. Egoera balantzea 1997-XII-31n.

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1998ko otsailaren 10ean harturiko Erabakia betez eta

Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz, 1997ko Nafarroako Parlamentuko Kontu Orokorrei buruzko Aholkularitza Txostena egiteari ekin zaio.

Lana, egindako eskaeraren arabera, 1997ko Nafarroako Parlamentuko finantza-egoerak, Kontu hartzaileak aurkeztuak, arrazoizkoak ote ziren aztertzean datza. Gure azterketa egitean ingurubarrak kontuan harturik beharrezkoak iruditu zaizkigun ikuskapen-jardunbide eta arauak aplikatu ditugu.

II. IRITZIA.

Gure iritziz, finantza-egoerak egoki adierazten ditu 1997ko aurrekontuaren betetzea, Nafarroako Parlamentuaren 1997ko abenduaren 31ko egoera ekonomikoa eta ondare-egoera eta egun hartan bukatzen zen urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak ere, aplikagarriak diren kontabilitate hatsapen eta irizpideekin bat etorriz.

Txostena egiteko arduraduna den Francisco Javier Sesma Masa jaunak proposatuta ematen da, indarrean dagoen arautegian aurreikusitako bitarteko guztiak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

III. EGOERA FINANTZARIOAK. 1997-XII-31n.**1. KOADROA. 1997ko AURREKONTUA BURUTZEA.**

Nafarroako Parlamentuko 1997ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
gastuen kapitulu ekonomikoka (pezetatan)

kap.	Zehaztapena	Bateratua	Baimen. kred. guztira	Erabilia	Onetsitako betebeharrak	Gauzatua	Erresultak	Deuseztua
1	Langile gastuak	252.092.000	250.098.200	246.321.565	246.321.565	246.321.565	0	5.770.435
2	Ohiko ond. eta zerb. gast.	202.190.000	193.101.915	184.773.246	184.773.246	183.756.228	1.017.018	17.416.754
3	Gastu finantzarioak	0	0	0	0	0	0	0
4	Ohiko transferentziak	210.195.000	210.012.000	209.394.183	209.394.183	209.394.183	0	800.817
6	Inbertsio errealak	141.418.925	67.984.036	40.630.996	40.630.996	37.934.096	2.696.900	100.787.929
7	Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0
8	Aktibo finantzarioak	5.000.000	4.783.480	4.783.480	4.783.480	4.783.480	0	216.520
9	Pasibo finantzarioak	900.000	782.593	782.593	782.593	782.593	0	117.407
	GASTUAK, GUZTIRA	811.795.925	726.762.224	686.686.063	686.686.063	682.972.145	3.713.918	125.109.862

Nafarroako Parlamentuko 1997ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
dirusarreraren kapitulu ekonomikoka (pezetatan)

Kap.	Zehaztapena	Bateratua	Egindako dirusarrerak	Benetako kopurua	Sartua + / -
1	Zuzeneko zergak	0	0	0	0
2	Zeharkako zergak	0	0	0	0
3	Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.250.000	1.992.059	1.992.059	742.059
4	Ohiko transferentziak	644.027.000	644.027.000	644.027.000	0
5	Ondare dirusarrerak	6.800.000	7.264.752	7.264.752	464.752
6	Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0
7	Kapital transferentziak	128.891.000	104.000.000	104.000.000	-24.891.000
8	Aktibo finantzario	30.727.925	31.608.453	31.608.453	880.528
9	Pasibo finantzario	100.000	319.698	319.698	219.698
	DIRUSARRERAK, GUZTIRA	811.795.925	789.211.962	789.211.962	-22.583.963

**2. KOADROA. 1997KO EKITALDIKO
ONDARE ETA EKONOMI EMAITZAREN KONTUA
(pezetatan)**

Kontzeptua	Urtea		Aldaketa % 97/96
	1996	1997	
1290 Ondare eta ekonomi emaitza	131.211.871	144.146.989	9,8
1000 Ondarea	(12.824.478)	(41.586.843)	224,3
Inbertsioak (40.630.996 pta.)	—	—	—
Altibo eta pasibo finantz. aldaketa garbiak (955.847 pta.)	—	—	—
1290 Ekitaldiko emaitza	118.387.393	102.560.146	-13,4

**3. KOADROA. 1997ko EKITALDIKO
EMAITZA BANATZEA
(pezetatan)**

Kontzeptua	Urtea	
	1996	1997
NONDIK:		
1290 Ekitaldiko emaitza (gerakinak)	118.387.393	102.560.146
NORA:		
4760 Foru Ogasun Publiko hartzekoduna, kredituen itzulketa dela-eta	91.069.468	102.560.146
5500 Hurrengo ekitaldiko aurrekontuak sartzeko gerakina	27.317.925	—

**4. KOADROA: EGOERA BALANTZEA 97-XII-31n
(EKITALDIKO EMAITZA APLIKATU ONDOREN)**

AKTIBOA	Ekitaldia		PASIBOA	Ekitaldia	
	1996	1997		1996	1997
A) Ibilgetua			A) Norbere fondoak		
I. Ibilgetu materiala	690.921.160	1.815.403.766	I. Ondarea	721.790.373	1.847.426.589
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	444.097.387	1.583.922.975	Ondarea	287.324.313	297.960.529
Makinak, Instalaz. eta tresneria	45.051.410	47.504.126	Atxikitako ondarea	434.466.060	1.549.466.060
Garraio-elementuak	9.820.681	9.820.681			
Altzariak	87.066.304	88.062.723	II. urreko ekitaldietako emaitzak		
Informazioa erabiltzeko ekipoak	56.265.933	29.104.392	Gerakinak-Aplikatu gabeko emaitzak	242.497	242.497
Bestelako ibilgetu materiala	48.619.445	56.988.869	Aplikatzeko dauden kontusailak	242.497	242.497
II. Ibilgetu ez materiala	23.769.644	23.967.407			
Ikerketa, azterlanak eta proiektuak	1.689.291	1.689.291	B) Epe laburreko hartzekodunak		
Aplikazio informatikoak	15.150.495	17.431.216	I. Onetsitako beteb. engatiko hartzek.	37.817.282	5.713.918
Aplikatzeko dagoen ibilgetua	6.929.858	4.846.900	Ek. arrunt onets. beteb. hartzekodunak	7.121.630	—
III. Ibilgetu finantzarioa	5.743.947	5.701.394	Itxitako ek. onets. beteb. hartzekodunak	3.377.727	5.713.918
Epe luzeko maileguak	5.743.947	5.701.394	Aplikatu gabeko kontusailak	27.317.925	—
			II. Entitate publikoekiko zorrak	93.519.398	105.409.819
B) Aktibo ibilkorra/Kontu finantzarioak			Foru Og. Publikoa, zerga kontzeptuak	32.877	89.640
I. Aldi baterako finantza inbertsioak	1.807.314	2.342.819	Foru Og. Publikoa, kred. itzultzea	91.069.468	102.560.146
Epe laburreko maileguak	1.807.314	2.342.819	Gizarte Segurantzaz hartzekoduna	2.417.053	2.760.033
II. Aurrekontuz kanpoko beste zordunak	1.070.756	516.633			
Osasun laguntzagatiko aur. eta mail.	1.070.756	516.633	III. Bestelako hartzekodunak	851.687	388.792
III. Diruzaintza	130.908.416	111.249.596	Epe laburrean jasotako fidantzak	851.687	388.792
Kutxa	146.688	255.075			
Erakunde finantzarioak	130.719.848	110.950.737			
Erakunde finantzarioak	41.880	43.784			
(A + B) Aktiboa, guztira	854.221.237	1.959.181.615	(A + B) Pasiboa, guztira	854.221.237	1.959.181.615
Abalak eta bermeak	4.191.094	5.112.941	Abalak eta bermeak	4.191.094	5.112.941
Jasotako abalak	4.191.094	5.112.941	Abalistak	4.191.094	5.112.941



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--